

BALOREZKO PROPOSAMENA

Urtzi Tello, Oier Jimenez, Ainhoa Iza, Naroa Asensio eta Uxue Arruabarrenak *Eraman* enpresa osatzen dugu. Gure produktu nagusia karro berri bat da eta haren berezitasun nagusia honako hau da: indarrrik egin gabe gauzak garraiatzeko ahalmena du.

Hasteko, produktu honek eskaintzen duen abantaila nagusia kanpo laguntzarik gabe eskailerak igo ditzazkeela da. Hori oinarrian duen egiturari esker betetzen du, izan ere, botoi bati emanaz oinarria inklinatu egingo da karro barruan dagoenari kalterik egin gabe eskailerak igo ahal izateko. Horrez gain, hozkailu batez orniturik dago, elikagaiak egoki mantentzeko (hau poliuretano aparrari esker lortuko dugu). Ez hori bakarrik, mota guztietako eguraldi eta temperaturak jasateko gai da, aluminioz eraikita baitago. Aluminioa material oso iraunkorra da bere arintasuna onuragarria da gure produktuarentza. Hala ere, aluminioa oxidatzen denez plastikozko estalki bat jarri beharko genioke, era berean iragazgaitza (ura jasango du) izango dena.

Bestalde, funtzionamenduari dagokionez, txertatutako mando baten bidez gidatzen da eta honek daramatzan botoiekin norabidea eta abiadura neurtu daitezke. Hala ere, bateria gabe geratuz gero, eusgailu batzuk ditu zure kabuz eraman ahal izateko. Kargatzeko metodoari erreferentzia eginez, bi modu desberdin daude: eguzki energiaren (txertatutako eguzki-panelak ahalbidetua) edo korrante elektrikoaren bidez.

Jarraitzeko, bi tamainetako karroak eskainiko dira, bata 40 litrokoa eta bestea 75 litrokoa, bakoitzaren beharren arabera egokitzeko. Horrez gain, karroa eskailerak igotzeko oinarriarekin edo gabe salduko da, bakoitzaren beharren arabera egokitzeko. Hala ere, karro guztiek izango dute indarrrik egin gabe mugitzeko software eta hardwarea. Diseinuak ere askotarikoak izango dira. Balio kuantitatiboari dagokionez, prezio onean salduko lirateke, hasiera batean prezioa karro normal batena baino altuagoa izango litzateke, baina kontuan hartu behar da erabilgarritasun handiagoa izango dutela, egoera batean baino gehiago erabili daitezkeelako.

Gainera, inguruneari ez dio kalterik egingo, elektrikoa baita, eta hamaika denda elektronikoa eta bestelakoetan eskuragarri egongo da karro autonomo hau. Bukatzeko, produktua edozeinen eskura egongo den arren, aukera bikaina da adinekoen eta arazo fisikoak

dituztenen erosotasuna bermatzeko, haien egunerokotasuna nabarmenki erraztu eta hobetzeko aukera baita gure produktua.

BOZETOA:

